



JOSEBA OLALDE

■ Goian, Egailanen egoitza Gasteizen. Eskuinean, berriz, Egailanen webgunea.

Emaitzak

Egailanek lau arlo nagusi ditu: Langai, Behatokia, Ebaluaketa eta Foroak eta Informazioa

GAUR egun formakuntzak duen garrantziaren aurrean, irtenbide publiko bezala sortu zen Egailan, eta merkatuan dagoen formakuntza eskaintza eta zerbitzu interesgarrienak herritarren esku jartzen ditu.

Aurreko orrian Langairi buruz hitz egin ondoren, Egailanen menpe dauden gaitz nontzeko hiru arlo nagusiak aipatuko ditugu: Behatokia, Ebaluaketa eta Foroak eta Informazioa. Hirurek lan eskaintzaren eta formakuntza-jarraipen zehatza egiten dute.

Behatokiari dagokionez, erabakiak hartzen laguntzen

du, formakuntzan eta lan merkatuan dauden azken joera edo eskaerei buruzko informazioa aztertu eta ezaugaraziz. Eusko Jaurlaritzaren, agente sozialen, herritarren eta enpresen zerbitzura dago.

Ebaluaketa sailak lanbide eta formakuntza programen azterketak eta ebaluaketak egiten ditu. Eusko Jaurlaritzaren formakuntza eta lan politiken emaitzak eta diseinua hobetzeko beharrezko informazioa ematen ditu. Foro eta Informazio arloa, berriz, langabeziarekin zerikusia duten era guztietako albisteak eskaintzeko sortu zen.

Egailanek eskainzen dituen formakuntza aukera ezberdinak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez egiten dira. Sail honek urtero babestu egiten ditu EAEko herritarrei zuzendutako formakuntza jarduerak. Jarduera horien helburua da langileen gaitasun profesionala hobetzea eta langabetuak lan merkatuan sartzea.

Testuinguru horretan, Egailanen Eboluzio arloak egindako azken lanetako bat, Lanbide Formakuntzarako Kurtsoetan parte hartu dutenen lanbide jarraiketa izan

tuzte. Egailanek eskaintako lanbide formakuntzarako ikastaroetan parte hartu zuten 8.264 langabeturi hainbat galdera egin zitzaizkien. 661 ikastaroetan parte hartu zuten eta ebaluaketak ikastaroen emaitzak aztertu ditu, hau da, ea ikastaroan parte hartzeak lanik aurkitzen lagundu zien, ikastaroa bukatu eta sei hilabeteren ondoren.

■ Txostena

Egailanek egindako txostenak ondorio garrantzitsu bat utzi du agerian: ikastaroen ondoren langabetuen lan ezarpen tasa %53,27an ezarri dela aurrean. Azken bi urteetan indize hori dezentz igo da, 12 puntu hain zuzen ere. Egailanek ondorio garbia ateratu du: ikastaro edo Formakuntza Ekin-tzek gero eta aukera gehiago eskaintzen dietela langabetuei lana aurkitzeko.

Sexuari dagokionez, gizon eta emakumeen lan ezarpena gero eta parekatua-

goa dago: emakumeena %50ean ezarri da eta gizona, berri, %57an. Adina aintzat hartuz, 20-24 urte arteko gazteek dute lan ezarpen gehien, %60; lan ezarpen gutxien, berriz, 40 urtetik gorakoak dira, bai gizonak, bai emakumeak.

Emitza horiek guztiek ikastaroen garrantzia azpimarratzen dute, lan merkatu-rako berreskuratzen den lan-indarra handia baita.

da. Ebaluaketa horiek egin dira batez ere langabetuek ikas dezaten formakuntza zein garrantzitsua gerta daitekeen. Langabetua animatu egin nahi dute bere formakuntza gaurkotzera, Egailanen azpimarratzen baitute formakuntza dela lana aurkitzeko tresna egokienetakoa.

Azterketa edo ebaluaketa horiek telefono bidez egin di-



**zarauzko
ANTONIANO
IKASTETXE
POLITEKNIKOAK**
egiten duen heziketa eskaintza:

BATXILERGOAK:

- Natur eta Osasun Zientzia
- Giza eta Gizarte Zientzia
- Teknologia

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- Mekanizazioa
- Instalazio eta ekipo elektroteknikoak
- Erizaintzako zaintza osagarriak

Behar diren ikasketak: 2. BBB, 2. IEE I, LH 1eko titulua, DBHko titulua

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- Proiektu mekanikoen garapena
- mekanizazio bidezko produkzioa
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Informatika aplikazioen garapena
- Ingurugiroko kimika

Behar diren ikasketak: UBI, 2. IEE II, LOGSE Batxilergo titulua, LH 2ko titulua

- Proiektu mekanikoen garapena Trokelgintza eta Moldetara eratua

Ziklo hau egiteko behar diren ikasketak: LH 2. Makina-erramintzen titulua edo Mekanizazio bidezko produkzioa titulua

Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 9ra

Matrikulatzeko epea: uztailaren 1etik 9ra

Idazkaritzako orduak: Goizetik: 8etatik 13ra arte
Arratsalde: 3etatik 7ak arte

Gipuzkoa kalea, 5 - Tel.: 943 83 02 86 - Faxa: 943 83 44 05 - 20800 ZARAUTZ
E-mail: antoniano@educanet.net



SERLANG
HIZKUNTZEN EUSKAL IKASTEGIA

Eman zure buruari
irabaz-tresnarik lehiakorrena:
Zure indarrak bikoiztu dituen
hizkuntza berri hori!

- Euskara
- Ingelesa
- Frantsesa
- Alemaniera
- Italiara
- Portugesa
- Errusiera

Easo k., 13 - 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 43 16 57 - Faxa: 943 43 16 58